## Nola eskatu zerbitzua?

Hitzordua eskatu behar da. Honela eskatu daiteke:

- **Telefonoz: 945 23 10 50,** astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:00etara, eta 16:00etatik 18:00etara.
- **E-postaren bidez:** colegio@icaalava.org

**ARRETA ORDUTEGIA**

Osteguneta, 16:30etik 18:30era, eta, ostiraletan, 10:00etatik 12:00etara, Arabako Abokatuen Elkarte Ohoretsuaren egoitzan (Frai Francisco Ibilbidea, 4).



Ilustre Colegio de Abogados de Álava
Arabako Abokatuen Elkarte Ohoretsua

Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

# EZAGUTU ZURE ESKUBIDEAK

**Adinekoentzako informazio juridikoaren zerbitzua.**



# Zer da?

Abokatu adituek **adinekoei informazioa eta aholkuak ematen dizkiete haien eskubide juridikoei buruz.**
Prozesu judizialen aurretiko orientazioa ematen da.
Ofiziozko abokatua izendatu beharko balitz prozedura judizial batean esku hartzeko, Orientazio Juridikoko Zerbitzuaren harrerara bideratuko da.

# Zertarako da?

- **60 urtetik gorakoentzat.**
- **Adinekoak zaintzen dituzten familientzat.**
- **Gizarte zerbitzuetako profesionalak.**



# Zer gairen inguruan eskatu daitezke argibideak?

Gai hauei buruzko edozein beharrizan edo zalantza:

- **Zuzenbide zibila** (oinordekotzak, salerosketak, mendekotasuna…)
- **Gizarte Segurantza** (pentsioak, subsidioak…)
- **Zuzenbide penala** (tratu txarrak, abandonua, tratu desegokia…)
- **Zuzenbide administratiboa** (isunak, erreklamazioak…)
- **Zuzenbide fiskala** (zergak, aitorpenak…)
- **Etxebizitza** (etxegabetzeak, oztopo arkitektonikoak…)

Adinekoen eskubideen inguruan kezka sortzen duten, edo bazterkeria, abusua nahiz kaltea eragin dezaketen egoerei buruzko informazioa edo aholkularitza behar duten guztietan.

